

# LABORAL KUTXA TALDEAREN EROSKETA JASANGARRIEN POLITIKA

## EROSKETA JASANGARRIEN POLITIKA

LABORAL Kutxaren erosketak kudeatzeari dagokionez, jasangarritasuna gure kooperatiba-izaeran oinarritzen da, baita gure hornitzaileek ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren arloko irizpideak (hemendik aurrera, ESG, ingelesezko siglak) ezartzeko borondatean ere.

LABORAL Kutxaren Erosketa Jasangarrien Politikak printzipio hauek ditu oinarri:

- ✓ Erosketa-prozesua etengabe hobetzeko dinamika bermatzea, jasangarritasun-printzipioetan oinarrituta.
- ✓ Gure hornitzaileak hautatzeko prozesuan erabakiak hartu behar direnean ESG irizpideak aintzat hartzea.
- ✓ Erosketa-prozesuan parte hartzen duten alderdi guztiak jasangarritasunaren inguruan sentsibilizatzea.
- ✓ Ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren arloan aplikatzekoak diren lege-baldintzak hornidura-kate osoan betetzen direla zaintzea.
- ✓ Gardentasuna eta informazio osatua eta zehatza bermatzea hornidura-prozesuan.
- ✓ Enpresa hornitzaileak hautatzeko prozesuan legeak, osotasunarekiko konpromisoa, lehia, objektibotasuna, gardentasuna, balioa sortzea, ustelkeriaren prebentzioa eta konfidentzialtasuna betetzen direla bermatzea.
- ✓ Hornitzaileekin lankidetzan aritzea Politika hau betetzen dela bermatzeko eta haien jarduna hobetzeko.
- ✓ Enpresa hornitzaileei jarraipena egitea, jasangarritasunaren arloko konpromisoak betetzen ari direla ziurtatzeko.

Politika hau garatzeko, [LABORAL Kutxako Hornitzaileen Etika eta Jokabide Kodea](#) dugu.

## Politikaren ezaugarriak

Bertsioa	Data	Organoa	Arrazoia	Aldaketak
1	2023/09/29	Kontseilu Errektorea	Hasierako onespena	